LARRABETZU UDALA

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

Esp. Zkia. Z/G
EE.- 2025-00083

075/2025 DEKRETU ZENBAKIA:
Larrabetzuko udaletxean, 2025ko zezeilaren 26an.

OINARRIA: 2020ko urriaren 28an, Larrabetzuko Udalak gazteak etxebizitzak alokatzeko udal diru-laguntza emateko zuzentarauak jasotzen dauan ordenantzearen behin betiko onespena egin zuen.

OINARRIA: Behin betiko izaerarekin onartutako 2025ko ekitaldi ekonomikorako udal aurrekontuaren 150-48002 zenbakiko aurrekontu-partidea dago 10.000,00 euroko zenbatekoagaz laguntza-programa horretarako.

Erantsitako dokumentazinoa aztertuta, eta Diru-laguntzei buruzko zemendiaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikuluan eta udalerrio eraikinetako tximiniak garbitzeko diru-laguntza emateko zuzentarauak jasotzen dauan ordenantzearen 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, HAU EBATZI DOT:

LEHENENGOA.- Gazteak etxebizitzak alokatzeko udal diru-laguntza programaren 2025ko deialdia onartzea, aurrekontuaren 150-48002 aurrekontu-partidan ezarritakoaren arabera, 10.000,00 euroko kredituagaz. Deialdia Dekretu honetan I eranskin bezala agertzen da.

BIGARRENA.- Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udalerriaren web-orrialdean argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Osoko Bilkureak egingo dauan hurrengo bileran ebazpen honen barri emongo da.

Amaia Lekue Mezo
Alkatea

Nire aurrean,
Idazkaria

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

I ERANSKINA

Larrabetzun bizi diren 18-35 urte bitarteko gazteei zuzendutako etxebizitzen alokairurako diru-laguntzen deialdia

1. Artikulua. Helburua.-

Larrabetzuko udalerrian ohiko egoitza izateko alokairu erregimenean etxebizitza bat duten 18-35 urte bitarteko gazteei etxebizitzaren alokairuaren zati bat ordaintzea. Kontuan hartuko dira 2024 urteari dagozkion errentak. Diru laguntza hori oinarri hauetan ezarritako baldintzen arabera emango da.

2. Artikulua. Salbuetsitako kontzeptuak.-

Ez dira kontutan hartuko etxebizitzako eranskinei (garajea edo trastelekua) dagozkien alokairuak, ezta komunitate eta administrazioko gastuak edo kontribuzio eta zerga kontzeptupean sortutako gastuak ere, nahiz eta kontratuan berariaz sartuta egon.

Alokairuaren hileko kuotatik 30 euroko balio finkoa deskontatuko da, aurreko paragrafoan deskribatutako eranskin edo komunitateko gastu bakoitzeko, baldin eta alokairuko kontratuan sartuta badaude eta ez bada horietako bakoitzaren hileko kostuaren berariazko justifikaziorik ematen.

3. Artikulua. Aurrekontua.-

2025. urtean deialdi honetarako aurreikusitako kopuru osoa 10.000,00 eurokoa da, eta Udal Aurrekontu Orokorreko 1500-48002 aurrekontu-

ANEXO I

bases reguladoras de concesión de ayudas dirigidas a jovenes residentes en larrabetzu de entre 18 y 35 años para el alquiler de viviendas.

Artículo 1. Objetivo-

Pagar parte del alquiler de la vivienda destinada a domicilio habitual de jóvenes de 18 a 35 años que residan en el municipio de Larrabetzu. Se tendrán en cuenta las rentas correspondientes al año 2024. Dicha subvención se concederá teniendo en cuenta las condiciones establecidas en estas bases.

Articulo 2. Conceptos exentos.-

A efectos de lo dispuesto en esta normativa, quedan excluidos del concepto de alquiler o cantidad subvencionable, los correspondientes a garajes y gastos de comunidad y administración, así como los que se produzcan en concepto de contribuciones y arbitrios, aun cuando figuren expresamente incluidos en el correspondiente contrato.

Se descontará del coste de la mensualidad de alquiler, un valor fijo de 30 euros por garaje o gastos de comunidad descritos en el párrafo anterior, cuando estén incluidos en el contrato de alquiler y no se aporte justificación expresa del coste mensual de cada uno de ellos.

Articulo 3. Presupuesto.-

La cantidad global prevista para esta convocatoria durante el año 2025 asciende a 10.000,00 euros, que podrá ser atendida con aplicación de la partida

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

partida aplikatuz egin ahal izango zaio aurre.

Aurrekontu-kreditua amaitu ondoren erantzun gabeko eskaerarik egongo balitz, eta organo eskudunak hala erabakiko balu, diru-laguntzak egozten zaizkion aurrekontuko partida handitu liteke.

4. Artikulua. Oinarriak onartzeko organo eskuduna.

Oinarri hauek onartzeko eskumena duen organoa Larrabetzuko Udalbatza da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) eta 49. artikuluen arabera.

5. Artikulua. Onuradunak

Ordenantza honetan arautzen den diru-laguntzaren onuradunak hurrengo baldintzak betetzen dituzten pertsona edo elkarbizitza unitateak izango dira:

a) 18-35 urte bitarteko adina izatea elkarbizitza unitateko kide guztiek, unitate horretan bizi diren menpeko adin txikikoak izan ezik.

b) Elkarbizitza unitateko eskatzaile edo kide batek ere ez izatea bere jabetzako etxebizitzarik, herentzia edo dohaintza bidez eskuratutako etxebizitza baten edo batzuen titular-kide diren kasuetan ezik, baldin eta titular-kidetasun horren portzentajeak ez badu %50 gainditzen eta etxebizitzetako

presupuestaria 150-48002 del Presupuesto General Municipal.

Si una vez agotado el crédito presupuestario existen solicitudes sin atender, y en el caso de que así se acuerde por el órgano competente, se podrá ampliar la partida presupuestaria a la que están imputadas las subvenciones.

Articulo 4. Organo competente para aprobar las bases.

El órgano competente para la aprobación de la presente Ordenanza es el Pleno Municipal, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 22.2.e) y 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local.

Artículo 5. Beneficiarios.

Podrán ser personas beneficiarias de las ayudas que se regulan en esta ordenanza, aquellas personas o Unidades Convivenciales que cumplan los siguientes requisitos:

a) Todos los integrantes de la unidad convivencial deberán tener una edad comprendida entre 18 y 35 años, excepción hecha de los menores dependientes que cohabiten con la Unidad Convivencial.

b) Que ningún solicitante o miembro componente de la Unidad Convivencial posea vivienda alguna de su propiedad, salvo en el supuesto de que sea cotitular de una o varias viviendas adquiridas por herencia o donación, en las que ninguno de los porcentajes de cotitularidad supere el 50% y el valor

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

partaidetzen balioa 75.000,00 eurotik gorakoa ez bada.

c) Etxebizitza baten jabe diren eta %50etik gorako titulartasuna duten pertsonak diruz lagunduko dira, baldin eta etxebizitza epaile baten erabakiz familia-egoitza esleitu bazaio bikoteko beste kideari, banaketaren, dibortzioaren edo izatezko bikotea desegitearen ondorioz; edo genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek segurtasun arrazoiak tarteko beren etxe bizitza utzi behar izan badute.

d) Diruz lagunduko zaie etxebizitza baten jabe direnei, baldin eta jabe diren etxebizitzaren jabetza soila baldin badute, etxebizitzaren erabilera edo/eta gozamena beste bati dagokiolako.

e) Elkarbizitza unitateko pertsona guztiak diruz lagunduko den etxebizitzan erroldatu beharko dira alokairu kontratua formalizatutakoan eta gutxienez diruz lagunduko den denbora tartean osoan zehar egoerak bere horretan jarraitu beharko du.

f) Ofizioz egiaztatuko da elkarbizitza unitatea osatzen duten pertsonak alokatutako etxebizitzan erroldatuta daudela. Halaber, kontratua hasi baino lehenagoko datarekin, kontratuaren titular ez diren pertsonak baleude etxebizitzan erroldatuta, kontratuaren titularrek erroldan baja-eskaera egin beharko dute pertsona horientzat, gutxienez diruz lagun daitekeen epearen barruan.

de las participaciones en vivienda no superen los 75.000,00 euros.

c) Personas propietarias de viviendas cuyo porcentaje de titularidad sea superior al 50% en el caso de que la vivienda haya sido asignada judicialmente como domicilio familiar al otro miembro de la pareja tras un proceso de separación o de divorcio o de extinción de parejas de hecho, así como las mujeres víctimas de violencia de género que hayan debido abandonar su vivienda por razones de seguridad.

d) Se les podrá conceder esta subvención a las personas propietarias de viviendas que sólo dispongan de la nuda propiedad de las mismas, estando atribuido el usufructo y/o uso a otra persona.

e) Todas las personas de la Unidad Convivencial deberán empadronarse en la vivienda objeto de subvención tras la formalización del contrato y dicha situación deberá de mantenerse durante todo el periodo que dure la subvención.

f) Se acreditará de oficio que todos los miembros de la Unidad Convivencial están empadronados en la vivienda arrendada. Asimismo, en caso de que haya personas, no titulares del contrato, empadronadas en la vivienda con fecha anterior al inicio del contrato, los/as titular/es del contrato deberán formular la solicitud de baja del padrón de dichas personas, dentro del periodo de subvención.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

g) Elkarbizitza unitatea osatzen duten pertsonetako bat gutxienez Larrabetzuko udalerrian egon beharko da erroldatuta, gutxienez 2 urteko etenik gabeko antzinatasunarekin deialdi hau argitaratu den unetik zenbatzen hasita.

h) Elkarbizitza unitateko diru-sarrerek ezin izango dute gainditu hurrengo zenbatekoak:

i) 25.000 euro gordin urtean (kide bakarraren kasuan).

ii) 35.000 euro gordin urtean (bi kide edo gehiagoren kasuan). Banandutako edo dibortziatutako pertsonen kasuan, diru-sarreren guztirako zenbatekoa kalkulatzean kendu beharrekoak izango dira umeentzako mantendu- pentsioari eta hileroko hipoteka kuotei dagozkien zenbatekoak.

i) Diru-sarreren osaketari dagokionez, amaitutako azken zerga-ekitaldiko kapital errentetatik eratorritako errendimendu gordinen zenbatekoa ezin izango da urtean 601,10 eurotik gorakoa izan.

j) Administrazioarekin Gizarte Segurantzan eta zergen betebeharretan egunean egotea.

k) Elkarbizitza unitateko kide guztiak Larrabetzuko Udaleko zerga, tasa, ariel eta zehapenak ordainduta izan behar dituzte.

g) Al menos una de las personas integrantes de la Unidad Convivencial debe de constar empadronada en el municipio de Larrabetzu, con una antigüedad mínima de 2 años de forma ininterrumpida desde que se publica esta convocatoria

h) El límite de ingresos de la Unidad Convivencial no podrán superar las siguientes cuantías:

i) 25.000 euros brutos anuales (si es un solicitante).

ii) 35.000 euros brutos anuales (si son dos o más solicitantes).
En el caso de personas separadas o divorciadas, para el cálculo del importe total de los ingresos, se restarán los importes correspondientes a la pensión por manutención de hijos/as así como el importe de las cuotas hipotecarias mensuales.

i) En cuanto a la composición de los ingresos, la cuantía de los rendimientos brutos derivados de rentas de capital del último ejercicio fiscal vencido, no podrá superar en su conjunto la cifra de 601,10 euros anuales.

j) Estar al día en las obligaciones tributarias y en la Seguridad Social con la Administración.

k) Todos los miembros de la Unidad Convivencial tendrán que estar al corriente del pago de impuestos, tasas, arbitrios y sanciones del Ayuntamiento de Larrabetzu.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

l) Onuradunaren eta errentatzailearen artean inongo familia-loturarik ez izatea odolkidetasun edo ahaidetasuneko bigarren mailaraino.

m) Errentatzailea ez da elkarbizitza unitateko kidetzat hartuko, etxebizitza horretan erroldatuta dagoenean.

6. Artikulua. Etxebizitzak eta errentamendu kontratuak bete beharreko baldintzak.-

1. Diruz lagunduko den etxebizitza Larrabetzuko udal mugartean egon beharko da eta dagokion bizigarritasun baimena izan beharko du.

2. Edonola ere, etxebizitzak gutxienez ondorengo bizigarritasun baldintzak bete beharko ditu:

a) Erabiltzeko moduan dagoen sukaldea, elikatze-iturri elektriko edo gasezkoa duena, eta behar bezala hornitua.

b) Dutxa edo bainuontzia duen bainugela.

c) Erabiltzeko egoeran dagoen ur bero sistema, bainugelara eta sukaldera zerbitzuarekin.

d) Erabiltzeko egoeran dagoen 220 volteko instalazio elektrikoa, dagokion buletinarekin.

e) Iturriko ura izatea.

f) Sare orokorrera isurketa duen saneamendua.

g) Kalerako aireztatzea.

h) Bizikidetza unitateko bi pertsonako (gehienez) logela bat.

l) El beneficiario no podrá tener vinculación familiar con el arrendador hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad.

m) No se considerará como miembro de la Unidad Convivencial al arrendador cuando éste se halle empadronado en dicha vivienda.

Artículo 6. Requisitos a cumplir en la vivienda y en el contrato de arrendamiento.-

1. La vivienda objeto de ayuda deberá estar situada en el término municipal de Larrabetzu y deberá de contar con la correspondiente licencia de habitabilidad.

2. En todo caso, la vivienda deberá contar, al menos, con las siguientes condiciones de habitabilidad:

a) Cocina en uso con fuente de alimentación eléctrica o gas adecuadamente equipada.

b) Cuarto de baño con ducha o bañera.

c) Sistema de agua caliente en funcionamiento con servicio al cuarto de baño y cocina.

d) Instalación eléctrica en uso a 220 voltios con su boletín correspondiente.

e) Disponer de agua corriente.

f) Saneamiento con vertido a la red general.

g) Ventilación a la calle.

h) Un dormitorio para cada dos

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

3. Kontratua elkarbizitza-unitateko kide guztien izenean egongo da, haiek familia- unitatea osatzen ez badute.

Diru-laguntza hauei dagokienez, etxebizitzan bizi diren pertsona guztien multzoa hartuko da elkarbizitza-unitatetzat (etxebizitza horren alokairua diruz laguntzea eskatu bada). Eskabide bakarra onartuko da etxebizitzako.

Gerora sortutako arrazoiak direla eta betetzen ez badira diru-laguntzarako baldintzak, onuradunek horren berri eman behar diote Udalari; egoera horrek laguntza ematea kentzea ekarriko du, eta onuradunek itzuli beharko dituzte ez-betetzea hasi zenetik jasotako zenbatekoak.

4. Alokairua banku-transferentziaren bidez ordaindu behar da.
5. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera ordaindutako alokairu-errentak behar dute izan.

## 7. Artikulua. Salbuespenak

Nahiz eta Larrabetzuko udal mugartean kokatu, ez dira ordenantza honetan araututako diru-laguntzen onuradun izango hurrengo egoeran aurkitzen diren eskaerak:

1. Ondorengo etxebizitza:

   a) Sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzak.

   b) Berrakurak.

   c) Logelen alokairuak (logela eskubidea).

personas (como máximo) de la Unidad Convivencial.

3. El contrato estará a nombre de todos los miembros de la Unidad Convivencial, en el caso de que los/as inquilinos/as no formen una unidad familiar.

A los efectos de estas subvenciones, se entiende por Unidad Convivencial el conjunto de personas que habitan la vivienda cuyo alquiler se solicita subvencionar.

Se admitirá una única solicitud por vivienda. El incumplimiento sobrevenido de los requisitos para acceder a la subvención deberá ser comunicado por los/as beneficiarios/as al Ayuntamiento, y será causa de resolución de la concesión, debiendo el/la beneficiario/a proceder al reintegro de las cantidades abonadas desde la fecha en que se origine el incumplimiento.

4. El pago del alquiler se realizará por transferencia bancaria.
5. Únicamente se subvencionarán las rentas pagadas a partir del mes de enero de 2024.

## Artículo 7. Excepciones.

A pesar de que la vivienda esté situada en el término municipal de Larrabetzu, no serán beneficiarios de las ayudas las solicitudes donde se cumplan las siguientes circunstancias:

1. Las siguientes viviendas:

   a) Las viviendas de protección oficial de promoción pública.

   b) Los subarriendos.

   c) Los arrendamientos de habitaciones (derecho de habitación).

d) Etxebizitza gisa erabilitako lokalak.

e) Bizigune programa barruan dauden alokairu etxebizitzak.

f) Etxebizitza libreak alokatzeko merkatuan bitartekotza egitekoei (ASAP edo antzekoak).

2. Hilean 650,00 euroko zenbatekoa (eranskinak barne) gainditzen duten alokairuko etxebizitzak.
3. Urtebete baino gutxiagoko iraupena duten alokairu kontratuak.
4. Euren izaera edo helburua kontutan izanik, beste udal departamendu edo erakunde autonomoren baten programei zuzendu beharrekoak.

Edozein kasutan, dagokion departamendu edo erakundeari helaraziko zaizkio eskaera hauek, interesatuari egoera horren berri emanaz.

8. Artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Ordenantza honetako eskaera orria (I eranskina) zuzen bete eta aurkezteaz gain, hurrengo dokumentazioa aurkeztu beharko dute eskatzaileek:

a) Elkarbizitza unitateko kide diren pertsona guztien NANaren fotokopia, indarrean dagoen egoitza-txartela edo pasaportea. Adingaberik balego, Familia Liburuaren fotokopia ere eraman beharko da senidetasuna egiaztatzeko.

b) Etxebizitzaren alokairu-kontratuan titular bat baino gehiago badago, alokairu-kontratuaren titular guztiek haietako baten alde emandako

d) Los locales usados como vivienda.

e) Las viviendas en alquiler sujetas al programa Bizigune.

f) Viviendas de intermediación en el mercado de alquiler de vivienda libre, ASAP o similares.

2. Alquileres de viviendas que superen la cantidad de 650,00 euros/mes (incluidos anejos).
3. Contratos de duración inferiores a un año.
4. Aquellos que por su naturaleza y objeto debieran haberse acogido a otros programas de otros departamentos municipales u organismos autónomos.

En todo caso se dará traslado de la solicitud al departamento u organismo correspondiente comunicando tal circunstancia al interesado.

Artículo 8. Documentación a presentar.

Los/as solicitantes (anexo I) deberán presentar junto con la instancia, la siguiente documentación:

a) Fotocopia del DNI, tarjeta de residencia o pasaporte en vigor de cada uno de los miembros de la Unidad Convivencial. En el caso de existir menores de edad, se aportará, además, fotocopia del Libro de Familia para acreditar la filiación.

b) En caso de más de un titular en el contrato de alquiler, la autorización de las personas titulares del contrato de alquiler a favor de una de ellas para solicitar la subvención

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

baimena, diru-laguntza beren izenean eskatzekoa.

en su nombre debidamente cumplimentada.

c) Bizikidetza unitateko bi pertsonako (gehienez) logela bat dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa (adibidez; alokairu kontratuari atxikitutako argazkiak).

c) Documentación que acredite (por ejemplo; fotos adjuntas al contrato de alquiler) que hay un dormitorio para cada dos personas (como máximo).

d) Jabetza-Erregistroaren indizeen zerbitzuak emandako ziurtagiriaren fotokopia, zeinek egiaztatu behar baitu elkarbizitza-unitateko kide guztiek betetzen dutela honako baldintza hau: jabetzako etxebizitzarik edo/eta azalera-eskubiderik eduki ez izana diru laguntza eskaera egin baino 15 egun lehenago.

d) Fotocopia del certificado expedido por el Servicio de Índices del Registro de la Propiedad acreditativo del cumplimiento del requisito de carencia de vivienda en propiedad o en derecho de superficie por parte de todos los miembros de la Unidad Convivencial 15 días antes de haber realizado la solicitud de la subvención.

Etxebizitza baten titular-kide izanez gero, edo etxebizitzaren baten jabea izanez gero, deialdian jasotako salbuespen bat egiaztatzen duen dokumentazioaren fotokopia. Hala nola;

En caso de ser propietario/a de una vivienda o tener alguna participación en su titularidad, fotocopia de la documentación que acredite alguna de las excepciones recogidas en la convocatoria. Por ejemplo;

i) Herentzia kasuan, herentziaren onarpen-agiria eta etxebizitza-partaidetzaren eskritura.

ii) Dohaintza-kasuan, dohaintza-eskritura.

iii) Bi kasuetan partaidetza saldu izan balitz, eskualdatzearen eskritura. Bananduta edo dibortziatuta egonez gero, deialdian jasotako kasuren bat egiaztatzen duen dokumentazioaren fotokopia (banantze-epaia, dibortzio-epaia, hitzarmen arauemailea, gurasoen eta seme-alaben arteko harremana egiaztatzen duen dokumentu legeztatua, konpentsazio-pentsioa edo mantenu-pentsioa).

i) En caso de herencia, aceptación de herencia y escritura de partición.

ii) En caso de donación, escritura de donación.

iii) En ambos casos, en caso de venta de la participación: escritura de transmisión.
En caso de separación o divorcio, fotocopia de la documentación que acredite los supuestos recogidos en la convocatoria (sentencia de separación/divorcio, convenio regulador, documento legalizado de relaciones paterno-filiales, pensión compensatoria y/o alimentos, etc.).

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

e) Etxebizitzaren alokairu kontratuaren kopia, diruz lagunduko den denbora-tartea bertan sartuz. Kontratuak urtebete edo gehiagoko iraunaldia izan beharko du.

e) Copia del contrato de arrendamiento de la vivienda, abarcando el periodo subvencionable. El contrato deberá de ser de duración de un año o más.

f) Errenta aitorpena egin badute, 18 urtetik gora duten elkarbizitza-unitateko kide guztien errenta-aitorpenaren fotokopia, iragandako azken zerga-ekitaldiari dagokiona (eskabidea aurkezten den unea erreferentziatzat hartuta).

f) En caso de realizar la declaración de la renta, fotocopia de la última declaración de renta de todos los miembros de la Unidad Convivencial mayores de 18 años
correspondiente al último ejercicio fiscal vencido, en el momento de presentación de la solicitud.

g) Errenta aitorpena egin ez badute, hura egitetik salbuetsita egotearen ziurtagiriaren fotokopia eta iragandako azken zerga-ekitaldiari dagozkion diru-sarrerak frogatzen duen dokumentazioa (eskabidea aurkezten den unea erreferentziatzat hartuta). Diru-sarrerarik izan ezean, horrela dela agertzen duen adierazpena.

g) En caso de no realizar la declaración de la renta, fotocopia del certificado de estar exento de presentación de la misma y documentación justificativa de los ingresos correspondientes al último ejercicio fiscal vencido, en el momento de presentación de la solicitud. En caso de carecer de ingresos, declaración en tal sentido.

h) Etxebizitzarako prestazio osagarririk edo antzeko diru-laguntzarik jasotzen dutela egiaztatzen duen Lanbideren egiaztagiriaren fotokopia, 18 urtetik gorako elkarbizitza- unitateko kide guztiena.

h) Fotocopia del documento expedido por Lanbide acreditativo de percibir la Prestación Complementaria de Vivienda u otra ayuda económica de carácter análogo, de todos los miembros mayores de 18 años de la Unidad Convivencial.

i) Etxebizitzan bizi diren pertsonen artean errentatzailearekin inongo lotura familiarrik ez egotearen ziurtagiria, odolkidetasun edo ahaidetasuneko bigarren mailaraino.

i) Declaración jurada de no existir vinculación familiar con el arrendador hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad, por parte de ninguna de las personas que habiten la vivienda.

j)Administrazioarekin Gizarte Segurantzan eta zergen betebeharretan (Bizkaiko Foru Aldundia) egunean egotearen ziurtagiria.

j) Acreditación de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias (Diputación Foral de Bizkaia) y de la Seguridad Social frente a la Administración.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

k) Larrabetzuko udalerriarekin inolako diru-zorrik ez izatearen ziurtagiria.

l) Ordaindutako alokairuko hileko-kuotak errentatzailearen banku-korrontean sartu izanaren egiaztagiriak (ez da onartuko eskudirutan egindako ordainketarik).

m) Diru-laguntza jasotzeko banku-korrontearen titulartasuna frogatzen duen dokumentua. Dokumentu hauetako edozeinek balio du horretarako: laburpen bankarioaren kopia, libretaren kopia, banketxeak egindako ziurtagiriak, dirulaguntza-eskabideko «Kontu-zenbakia» atalean banketxeak jarritako zigilua.

n) Diru-laguntza emateko betebeharrak kontuan izanik, baliagarria izan daitekeen beste edozein agiri.

9. Artikulua. Berariazko baimena

Eskatzaileek berariazko baimena eman beharko diete Larrabetzuko Udaleko udal zerbitzuei, eskumena duten erakundeengandik laguntzen onuradun izateko bete behar diren baldintza guztiak betetzeko datuak batu ditzaten, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 6. artikuluan ezarritakoa betez. Erroldako datuak Udalak jasoko ditu zuzenean

10. Artikulua. Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.

k) Acreditación de no tener ninguna deuda con el municipio de Larrabetzu.

l) Justificantes de ingreso en la cuenta bancaria de el/la arrendador/a del importe de las mensualidades de alquiler pagadas (no se admitirán pagos en metálico).

m) Documento justificativo de la titularidad de la cuenta bancaria donde realizar el pago de la subvención. Será válido cualquiera de los siguientes documentos: copia del extracto bancario, copia de la libreta, certificado expedido por la entidad bancaria o sello estampado por la entidad bancaria en el apartado «Número cuenta» del impreso de solicitud de subvención.

n) Cualquier otra documentación que pueda tenerse según los requisitos de concesión de la ayuda.

Artículo 9. Autorización expresa

Las personas solicitantes deberán autorizar expresamente a los servicios municipales del Ayuntamiento de Larrabetzu a recabar de los organismos competentes los datos necesarios para constatar el cumplimiento de todas las condiciones requeridas para ser beneficiario/a de las ayudas, a tenor de lo exigido en el artículo 6 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal. Los datos correspondientes al padrón serán recabados de forma directa.

Artículo 10. Plazo y lugar de presentación de solicitudes.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

1. Etxebizitzen alokairurako 2025eko diru-laguntzen deialdirako eskaerak aurkezteko epea iragarkia argitaratu eta 2025eko maiatzaren 31arte izango da.

2. Eskaera egiteko, dagokion instantzian aurkeztu beharko da, eta, horrekin batera, 7. artikuluan aipatutako dokumentazioa gehitu beharko da. Agiriak Larrabetzuko udaleko erregistroan aurkeztu beharko dira edo, bestela, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 16. artikuluak baimendutako edozein modutan

11. Artikulua.

Eskabideak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesatuei hamar (10) laneguneko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, antzemandako hutsak konpon ditzaten.

Emandako epea amaituta eta aurkitutako akatsak konpondu ezean, eskaera bertan behera utzi dutela iritziko da, prozedura artxibatuz, 39/2015 Legeko 68. artikuluan xedatutakoarekin bat ebazpena eman eta gero.

12. Artikulua. Zenbatekoa

1. Diru-laguntzaren zenbatekoa etxebizitzaren hileko alokairuaren prezioaren %50ekoa izango da gehienez. Gehienez ere, hilabete bakoitzeko 200,00 euroko laguntza emango da eskaera bakoitzeko eta gehienez 12 hilabeteko epealdi baterako.

1. El plazo de presentación de solicitud para la convocatoria de ayudas correspondiente al año 2025, se abrirá al día siguiente de su publicación y hasta el 31 de mayo de 2025.

2. La solicitud se realizará mediante la presentación de la correspondiente documentación instancia adjuntando a la misma la documentación citada en el artículo 7, bien en el registro del ayuntamiento de Larrabetzu o bien por cualquiera de las formas autorizadas por el artículo 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Artículo 11. Corrección de errores

Cuando la instancia de solicitud o la documentación preceptiva que la acompaña adolezca de algún error o sea incompleta, se otorgará a los interesados un plazo de diez (10) días, contados a partir del día siguiente al de la notificación del requerimiento, para subsanar los defectos detectados.

Transcurrido el plazo concedido sin que se subsanen los defectos detectados, se les tendrá por desistidos de su petición, archivándose el procedimiento, previa resolución que será dictada en los términos del artículo 68 de la Ley 39/2015.

Artículo 12. Cuantía

1. La cuantía de la subvención se establece en un máximo del 50% de la cantidad subvencionable, con un límite máximo de 200,00 euros/mes por solicitud para un periodo máximo de 12 mensualidades.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

2. Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa kuantifikatzeko, kontutan hartuko da oinarri hauetako 2. artikuluan salbuetsitako kontzeptuei buruz ezarritakoa.

3. Diru-laguntzen zenbateko osoak dagokion aurrekontuko partidan esleitutako zenbatekoa gainditzen badu, zenbateko hori onartutako diru-laguntza guztien artean proportzionalki banatuko da.

13. Artikulua. Ordainketa.

1. Onartutako diru-laguntza izaera pertsonalekoa da.

2. Diru-laguntza baten ordainduko da, eskatzaileak dagozkion hileroko ordainketak justifikatu ondoren. Diru-laguntza eman zitzaioneko helburua bete izana eta jasotako funtsak erabili izana justifikatzeko onuradunak duen ohiko azken epea 2025ko urtarrilaren 15ean amaituko da, baldin eta alokairu-kontratua deuseztatu ez bada 2024ko abenduaren 31 baino lehen; hala izanez gero, justifikazioa 15 eguneko epean egin behar da gehienez ere, alokairu kontratua deuseztatu den unetik zenbatzen hasita.

Epe hori igaro ostean ez badira ziurtagiriak eman, galdu egingo da diru-laguntza jasotzeko eskubidea.

2. Para la cuantificación de la cantidad subvencionable, se estará a lo dispuesto sobre las exclusiones de artículo 2 de las presentes bases.

3. En caso de que el importe total de las subvenciones a conceder supere la cantidad consignada en la partida presupuestaria correspondiente, se procederá al prorrateo de la misma entre todas ellas

Artículo 13. pago

1. La subvención reconocida es de carácter personal.

2. El abono de la subvención se realizará en un único pago, una vez justificados por el solicitante los pagos de las mensualidades correspondientes. El plazo último ordinario de justificación por parte de el/la beneficiario/a del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos finaliza el 15 de enero de 2025, salvo en el caso de que el contrato de alquiler se rescindiera con anterioridad al 31 de diciembre de 2024, en cuyo caso la justificación deberá realizarse en el plazo máximo de 15 días contado a partir de la resolución del contrato de alquiler.

Si transcurrido dicho plazo no se hubiera aportado los justificantes correspondientes se perderá el derecho a que le sea abonada la subvención.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

3. Ordainketa eskatzaileak, 7.1.m) artikuluan agindu moduan, emandako kontu korrontean egingo da.

14. Artikulua.

Modu orokorrean, oinarri hauen xede diren diru-laguntzak egiaztatzeko, ondorengo egiaztatze agiriak aurkeztu beharko dira 12. artikuluan ezarritako epean:

a) Alokairu kontratuaren baitan egindako hileko ordainketak.

b) Administrazioarekin Gizarte Segurantzako betebeharrak eta zerga betebeharrak (Bizkaiko Foru Aldundia) betetzerakoan egunera dagoela egiaztatzea.

c) Larrabetzuko udalerriarekin inolako diru-zorrik ez izatearen ziurtagiria.

d) Diruz lagundutako alokairua finantzatzeko jaso diren bestelako diru-sarrera edo laguntzen zerrenda, haien zenbatekoa eta jatorria barne.

Gastuak egiaztatzeko faktura, edo merkataritzako trafiko juridikoan froga balio bera duten edo administrazioaren aurrean eraginkortasuna duten bestelako agirien bidez, bai jatorrizko agiriak, bai zigilatutako fotokopiak aurkeztuko dira.

15. Artikulua. Beste diru-laguntzekin bateragarritasuna

1. Gazteei zuzendutako alokairurako laguntza hauek bateragarriak dira beste erakunde batzuek kontzeptu beragatik

3. El pago se realizará en la cuenta bancaria facilitada por el/la solicitante, tal y como exige el artículo 7.1.m).

Artículo 14. Documentación justificativa.

Con carácter general, las subvenciones objeto de las presentes bases se justificarán en el plazo establecido del artículo 12 mediante la presentación de la documentación justificativa que contendrá:

a) Justificantes de los pagos de las mensualidades correspondientes del contrato de alquiler.

b) Acreditación de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias (Diputación Foral de Bizkaia) y de la Seguridad Social frente a la Administración.

c) Acreditación de no tener ninguna deuda con el municipio de Larrabetzu.

d) Una relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado el alquiler subvencionado, con indicación del importe y su procedencia.

Los gastos se justificarán con facturas y demás documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa, en original o fotocopia compulsada.

Artículo 15. Compatibilidad con otras subvenciones.

1. La percepción de las ayudas de alquiler para jóvenes es compatible con la percepción simultánea de subvenciones

ematen dituzten aldi bereko diru-laguntzarekin, baldin eta elkarbizitza unitateak alokairu kontzeptuan jasotzen dituen laguntzen zenbateko osoak ez badu gainditzen errentatzaileari ordaindu beharreko errentaren gehienezko muga.

Kasu horretan laguntzen kalkuluaren arabera esleitutako zenbatekoa murriztuta geratuko da, elkarbizitza unitateak alokairu kontzeptuan jasotzen dituen laguntzen zenbateko osoa ez dadin izan errentatzaileari ordaindu beharreko zenbatekoa baino gorakoa, hilabete bakoitzeko.

2. Laguntza horien eskatzaile gisa, berariaz daude baztertuta Bizigune Programaren bitartez etxebizitza alokatu duten gazteak.

16. Artikulua. Balorazio irizpideak.

1. Diru-laguntzak emateko oinarrizko irizpideak oinarri hauen Lehenengo Tituluan zehaztuta daude.
2. Ezarritako baldintzak eta betebeharrak betetzen direla egiaztatu ondoren, dagozkion diru-laguntzak ordenantza honetan ezarritako baldintzetan emango dira.

17. Artikulua. Prozedura izapidetzeko eta ebazteko organo eskudunak

1. Ogasun batzordeak eskakizunak baloratuko ditu, beti ere Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoa kontutan izanik.

por idéntico concepto otorgadas por otras instituciones, siempre que el total de las ayudas a recibir por la Unidad Convivencial en concepto de alquiler, no supere el límite máximo de la renta a abonar al arrendador.

En este caso la cuantía asignada por el cálculo de las ayudas quedará reducida, para que el montante total de ayudas que la Unidad Convivencial recibe en concepto de alquiler, no supere la cantidad mensual a abonar al arrendador.

2. Se excluyen expresamente como demandantes de dichas ayudas, a jóvenes que dispongan de una vivienda alquilada a través del Programa Bizigune.

Artículo 16. Criterios de valoración

1. Los criterios básicos para la concesión de las ayudas se detallan en el Título Primero de estas bases.
2. Comprobado el cumplimiento de las condiciones y requisitos, se concederán las ayudas, en las condiciones establecidas en la presente ordenanza.

Artículo 17.Organos competetes para la tramitación y resolución del procedimiento.

1. Corresponderá a la comisión de hacienda, la realización de las labores de instrucción de las ayudas previstas en la presente convocatoria, teniendo en cuenta lo establecido en la Ley 38/2003,

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

2. Larrabetzuko Udalaren Tokiko Gobernu-Batzarraren eskumena izango da diru-laguntzak eman ala ez ebaztea

2. La resolución de la concesión competerá al pleno del Ayuntamiento de Larrabetzu.

3. Onuradunek 15 eguneko epea izango dute diru-laguntzari uko egiteko, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Onuradunek diru-laguntza onartu dutela joko da baldin eta diru-laguntzari uko egiten diotela berariaz adierazten ez badute goian aipatutako epearen barruan.

3. Los/as beneficiarios/as dispondrán de un plazo de 15 días naturales para renunciar a la subvención, contados a partir del día siguiente de la notificación de la resolución. Se entenderá aceptada la subvención por parte de los/as beneficiarios/as si en el plazo anteriormente indicado no han manifestado expresamente su renuncia.

4. Ebazpena erabaki eta jakinarazteko gehienezko epea hiru (3) hilabetekoa izango da, diru-laguntza eskera aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

4. El plazo máximo para resolver y notificar será de tres (3) meses contados a partir del día siguiente a la finalización del plazo para la solicitud de la subvención.

18. Artikulua. Larrabetzuko udalaren kontrola.-

1. Larrabetzuko Udalak egokitzat jotako agiriak aurkez ditzatela eskatu ahal izango die onuradunei.

2. Udal zerbitzuak bertaratu ahal izango dira, edota Udalaren datu baseak kontsultatu ahal izango dituzte diru-laguntzaren oinarrietan adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko helburu bakarrarekin.

3. Larrabetzuko Udalak, bere fiskalizazio-eginkizunak betetzeko, informaziorik eskatuz gero, diru-laguntzen onuradunek eman egin beharko diote.

Artículo 18. Control del Ayuntamiento de Larrabetzu.-

1. El Ayuntamiento de Larrabetzu podrá requerir a los beneficiarios la presentación de cuantos documentos se consideren oportunos.

2. Los Servicios Municipales podrán acudir e inspeccionar, así como consultar las bases de datos municipales con la única finalidad de comprobar el cumplimiento de los requisitos establecidos en las bases.

3. Los/as beneficiarios/as de las ayudas facilitarán cuanta información les sea requerida por el ayuntamiento de Larrabetzu en el ejercicio de sus funciones de fiscalización.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

19. Artikulua. Onuradunaren betebeharrak.-

Azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 14. Artikuluak ezarritakoari jarraikiz, onuradunak honakoak ere bete beharko ditu:

a) Diru-laguntza honen ematearen oinarrian den helburu zehatza betetzeko erabiltzea diru-laguntza honetatik jasotako dirua.

b) Eskatzen zaien informazio osagarri guztia aurkeztu beharko diote Larrabetzuko Udalari.

c) Diru-laguntza ematerakoan kontutan izandako edozein gorabehera (objektiboa nahiz subjektiboa) aldatzen bada, horren berri eman.

d) Ordenantza honen 4. artikuluan adierazitako baldintzak betetzeko behar diren kudeaketa lanak burutzea.

20. Artikulua. Diru-laguntzak bueltatzea.

Azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 37. Artikuluan araututako kasuak emanez gero, onuradunak jasotako diru-laguntza bueltaratu beharko du

Artículo 19. Obligaciones de los beneficiarios.-

Según lo dispuesto en el artículo 14 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, son obligaciones de los/as beneficiarios/as:

a) Utilizar la subvención para el concreto destino para el que haya sido concedida.

b) Deber de aportar al Ayuntamiento de Larrabetzu cuanta información complementaria les sea solicitada.

c) Comunicar la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

d) Realizar las gestiones necesarias para cumplir los requisitos establecidos en el artículo 4 de estas bases.

Artículo 20. Devolución de las subvenciones.

En el caso de que se dieran las causas establecidas en el artículo 37 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, el/la beneficiario/a deberá de devolver la subvención recibida.

LARRABETZU UDALA

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

# I ERANSKINA / ANEXO I

## DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERA: GAZTEEN ALOKAIRUA

| |
|---|
| ERREGISTRO ZKIA:<br>DATA: |

ESKATZAILEA / SOLICITANTE

| | | | |
|---|---|---|---|
| Izen-deiturak / Nombre y apellidos | | | NAN /DNI |
| Helbidea / Domicilio | | | Herria / Municipio |
| Posta kodea / C.P | Probintzia/Provincia | e-posta / e-mail | Telefono zk./Nº teléfono |
| Noren izenean / En representación de | | | IFK / NIF – NAN / DNI |
| Helbidea / Domicilio | | | Herria / Municipio |
| Posta kodea/ C.P | Probintzia/ Provincia | e-posta / e-mail | Telefono zk./Nº teléfono |

ESKAERA/PETICIÓN: ERANSTEN DIREN AGIRIAK/DOCUMENTOS QUE SE ADJUNTAN

| | |
|---|---|
| | NAN FOTOKOPIA bizikide guztiena/ Fotocopia DNI de todos los convivientes |
| | Etxebizitzaren alokairu kontratuan pertsona bat baino gehiago izanez gero, bizikideen baimena / En caso de más de un titular en el contrato de alquiler, la autorización del resto de los titulares del contrato. |
| | Argazkiak/ Fotos |
| | Jabetza bizitzarik edota azalera eskubiderik eduki ez izanaren ziurtagiria (Jabetza erregistroan)/ Certificado acreditativo de carencia de vivienda en propiedad o en derecho de superficie (Registro de propiedad) |
| | Etxebizitza baten titular kide izanez gero, deialdian jasotako salbuespen bat egiaztatzen duen dokumentazioaren fotokopia */ En caso de ser propietario de una vivienda fotocopia de alguna de las excepciones recogidas en la convocatoria * |
| | Etxebizitzaren alokairu kontratuaren kopia / Copia del contrato de arrendamiento |
| | Declaración de la renta del ejercicio anterior / Aurreko urteko rrentaren aitorpena |
| | Etxebizitzarako prestazio osagarriak jasotzearen ziurtagiria (Lanbide) / Certificado de percibir Prestación complementaria de vivienda (Lanbide) |
| | Etxebizitzan bizi diren pertsonen eta errentatzailearen artean inongo lotura familiarrik ez egotearen ziurtagiria / Declaración jurada de no existir vinculación familiar con el arrendador |
| | Ordaindutako alokairuko hileko kuotak egiaztagiriak/ Justificantes de las mensualidades pagadas. |
| | Diru laguntza jasotzeko banku korrontearen titulartasuna frogatzen duen dokumentua. / Documento justificativo de la titularidad de la cuenta bancaria donde realizar el pago. |
| | Jabetza erregistroaren indizeen zerbitzuak emandako ziurtagiria, zeinek egiaztatu behar du, jabetzako etxebizitzarik edota azalera eskubiderik eduki ez izana dirulaguntza eskaera egin baino 15 egun lehenago / Certificado expedido por el servicio de índices del Registro de la Propiedad que acredite la carencia de vivienda en propiedad y/o derecho de superficie con 15 días de antelación a la fecha de solicitud de la ayuda |
| | Beste batzuk: / Otros documentos: |
| | Kontu korronte zkia / Nº de Cta bancaria: ES |

DATA ETA SINADURA / FECHA Y FIRMA:

LARRABETZU UDALA

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

IZAPIDETZEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA/ DOCUMENTACIÓN A APORTAR PARA LA TRAMITACIÓN

1) Dirulaguntza eskatzeko eskabide-orria *(udal-eredua)* / Impreso de solicitud de ayuda económica *(modelo municipal).*

2) Eskabidea aurkezten duenaren NAN fotokopia eta elkarbizitza unitateko kide guztiena (eta ordezkaritza adierazten duen dokumentua.) / Fotocopia del DNI de la persona que presenta la solicitud y del resto de los convivientes(y documento que acredite su representación.)

3) Etxebizitzaren alokairu kontratua (Titular bat baino gehiago balego, eskatzailearen aldeko baimena)/ Contrato de arrendamiento de la vivienda (En caso de que hubiera más de un titular, una autorización a favor del solicitante).

4) Bizikidetza unitateko bi pertsonako logela bat dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa (Argazkiak). / Documentación que acredite que existe una habitación para cada dos personas (Fotos).

5) * Etxebizitza baten titular edo jabea izanez gero, deialdian jasotako salbuespen bat egiaztatzen duen dokumentazioa; / * En caso de ser titular o propietario de una vivienda, documentación acreditativa de una excepción contemplada en la convocatoria

5.1) Herentzia kasuan, herentziaren onarpen agiria eta etxebizitzaren partaidetzaren eskritura. / En caso de herencia, documento de aceptación de la herencia y escritura de participación de la vivienda.

5.2) Dohaintza; Eskritura / Donación; escrituras

5.3) Bi kasuetan: partaidetza saldu izan balitz, eskualdatzearen eskritura / En ambos casos: de haberse vendido la participación, escritura de transmisión

5.4) Bananduta edo dibortziatuta egonez gero, deialdian jasotako kasuren bat egiaztatzen duen dokumentazio; sententzia, hitzarmena, etb./ Documentación acreditativa de alguno de los supuestos de separación o divorcio contemplados en la convocatoria; sentencia, convenio, etc

6) Irabazi asmorik gabeko elkartea bada, dagokion erregistroko ziurtagiria / Si se trata de una entidad no lucrativa, certificado del registro correspondiente.

7) Etxebizitzan bizi diren eta errentatzailearen artean ez dagoela lotura familiarrik (bigarren mailaraino) egiaztatzen duen zinpeko adierazpena./ Declaración jurada de que no existe vinculación familiar (hasta el segundo grado) entre los residentes en la vivienda y el arrendador.

8) Diru laguntza jasotzeko banku korrontearen titulartasuna frogatzen duen dokumentua. / Documento acreditativo de la titularidad de la cuenta bancaria para la percepción de la subvención.

9) Jabetza erregistroaren indizeen zerbitzuak emandako ziurtagiria, zeinek egiaztatu behar du, jabetzako etxebizitzarik edota azalera eskubiderik eduki ez izana dirulaguntza eskaera egin baino 15 egun lehenago / Certificado expedido por el servicio de índices del Registro de la Propiedad que acredite la carencia de vivienda en propiedad y/o derecho de superficie con 15 días de antelación a la fecha de solicitud de la ayuda

10) Egindako ordainketen ordainagiriak. / Justificantes de pago de las mensualidades

DOKUMENTAZIO EGIAZTAGARRIA (ez da aurkeztu behar)/ DOCUMENTACIÓN VERIFICABLE (no hay que aportar)

Larrabetzuko Udalak, eskura dituen datuen bitartekotza-sistemen bidez, beste administrazio batzuen esku dauden dokumentu hauei buruzko kontsultak eta/edo egiaztapenak egingo ditu, salbu eta berariaz aurka egiten baduzu (kasu horretan, dokumentazioa aurkeztu beharko duzu):

LARRABETZU UDALA

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
**www.larrabetzu.eus**

El Ayuntamiento de Larrabetzu, mediante los sistemas de intermediación de datos disponibles, realizará las consultas y/o verificaciones de los siguientes documentos en poder de otras Administraciones, salvo que Vd se oponga expresamente (en cuyo caso deberá aportar la documentación):

1) Nortasun Agiri Nazionala (NAN) edo Atzerritarren Identifikazio Zenbakiaren (AIZ) / Documento Nacional de Identidad (DNI) o Número de Identificación de Extranjeros (NIE)Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak eguneratuta dituen ziurtagiria / Certificado de estar al corriente de pago con la Seguridad Social.

2) Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak eguneratuta dituen ziurtagiria / Certificado de estar al corriente de pago con Hacienda.

3) Aurreko urteko errenta aitorpena / Declaración de la renta del año anterior.

4) Etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzen direla egiaztatzen duen lanbideren ziurtagiria. / Certificado de Lanbide, acreditativo de la percepción de la prestación complementaria de vivienda.

*Nire datuak kontsultatzeari uko egiten diot, eta arrazoi hauek ematen ditut: Me opongo a la consulta de mis datos, alegando los siguientes motivos:* _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _

DATA ETA SINADURA / FECHA Y FIRMA:

**Datu pertsonalen tratamendua legitimatuta gelditzen da interes publikoaren izenean edo Larrabetzuko Udalari emandako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzearekin, jarraibide harturik 6.1.e artikuluan aurreikusten duena 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarenak, eta legeria aplikagarria.**
El tratamiento de los datos de carácter personal queda legitimado en el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al ayuntamiento de Larrabetzu, en los términos previstos en el artículo 6.1.e del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016 y legislación aplicable.